

ESKABIDEA ETA DOKUMENTAZIOA

1. Eskabidea:

Aurkezteko erabiltzen den kanala edozein dela ere, elektronikoa edo presentziala, erabili behar den eskabide-inprimakia Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoa dago, eta hauen bidez sartzen da: www.trafikoa.eus edo <https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa/>.

Aurrez aurre egin nahi bada, eskabidea beteta eta dokumentazioa Herritarrei Arreta Emateko Zuzenean Zerbitzuan aurkeztu behar dira.

2. Eskabidearekin batera hainbat dokumentu aurkeztu behar dira.

Administrazioarekiko harremanetarako aukeratutako kanala edozein dela ere, aurkeztu beharreko dokumentazioa hau da:

- ✓ "Taldearen ziurtagiri teknikoa", salbu eta emandako baimena berritzeko eskatzen bada. Horrelakoetan, berritu nahi den espedientea zein den adierazi behar da, besterik ez.

Izapidetzeko kanal presentziala aukeratu badu, beste hauek ere aurkeztu behar ditu:

- ✓ Interesdunaren identifikazioa.
- ✓ Ordezkaritzaren egiaztagiria.